

2007ko MARTXOA

GAZTEEN EMANTZIPAZIOA



Gazteriaren Informaziorako Lurralde Zentroa
Centro Territorial de Información Juvenil



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

AURKIBIDEA

| | |
|---|-----------|
| SARRERA | 2 |
| EMANTZIPATU AURRETIK EGIN BEHARREKOA: EKONOMIA PERTSONALA (LAGUNTZAK, ABANTAILAK...) | 4 |
| EMANTZIPATU ONDOREN EGIN BEHARREKOA: IZAPIDEAK ETA ZERGAK | 8 |
| NORBERAREN AUTONOMIA. NOLA ATERA BIZIMODUA | 10 |
| HELBURUA: NOLA BANATU DIRUA HILAREN BUKAERARA HELTZEKO | 12 |

SARRERA

Duela hamarkada batzuk, gazteak gogoz aritzen ziren lanean, gizarteak ahalegin handi horren truke hainbat sari emango zizkiena baitzekiten. Oro har, honako hauek ziren gazteek lortzen zituzten ordainak:

- Enplegu egonkorra
- Etxebizitza bat lortzeko aukera
- Jatorrizko familiarengandik bereizi eta beste familia bat osatzeko aukera

Nahiz eta orduko familien artean gizarte, kultura eta lurralde aldeak izan, gazte guztiak zeregin komuna zeukaten: etorkizunari begira prestatzea.

Aipatutako prestaketa horren truke gizarteak iraupen luzeko enplegu bat 'bermatu' ohi zion gazteari eta, maiz, enplegu hori bizi osorako izaten zen. Enplegua izateak, gaur egun bezala, etxebizitza izateko eta emantzipatzeko aukera handitzen zuen.

90eko hamarkadaren erdialdean aldiz, gaztearen egoera erabat aldatu zen:

- Enplegu egonkorrak murriztu egin ziren eta behin-behinekoak handituz joan ziren.

Lan-merkatu berrian enplegu baldintzak aldatu ziren, eta bizi osorako lanpostuen ordez, aldi baterako zenbait lanpostu elkarren segidan izatea gailendu zen. Aldaketa horrek gazteen lanaren prekarietatea ekarri zuen eta garai batean ez bezala, gazteek ez zeukaten bermatuta egingo zuten lanak aurretik ikasitakoarekin lotura izango zuenik.

- Etxebizitza bat lortzeko zailtasunak.

Gaur egun oso nekosoa da etxebizitza bat erostea. Garai batean gazteei zuzendutako etxebizitza-merkatua handia bazen ere, egun urtean eraikitzen

diren etxebizitzen %95 merkatu pribatuari dagozkio. Gaur egungo gazteek soldata erdia behar dute etxebizitza mailegua ordaindu ahal izateko.

- Emantzipatzeko adina atzeratu egin da.

Besteak beste, arestian aipatutako bi aldaketak direla-eta gazteek emantzipatzeko eta seme-alabak izateko adina atzeratu dute.

Emantzipatzeak dakarren lana ikusita, hurrengo orrietan lagungarri izango diren kontzeptu eta aholku batzuk emango dizkiogu etxetik joan nahi duen gazte orori.

EMANTZIPATU AURRETIK EGIN

BEHARREKOA:

EKONOMIA PERTSONALA (LAGUNTZAK, ABANTAILAK...)

Emantzipatzeak lan izugarria ekartzeaz gain, hainbat egoera berri ere ekarriko ditu: besteak beste, lana bilatu, etxebizitza bat lortu eta dirua aurreztu beharko dugu gurasoen etxetik alde egingo badugu. Emantzipatzeko dirua eta etxebizitza propioa beharko ditugu, eta behar horiek asetzeko administrazioak hainbat ekimen hasi dira antolatzen, gazteen artean enplegua eta etxebizitza sustatzeko asmoz.

Enpleguaz eta etxebizitzaz gehiago jakin nahi izanez gero, **www.emancipacionjoven.es** helbidera jo dezakegu, hor sakonkiago lantzen baitira aipatutako bi gaiok. Bestela, etxetik gertuen daukagun gazteen emantzipaziorako bulegora ere joan gaitzke eta hantxe behar dugun informazio guztia jasoko dugu. Bulego horien helburua gazteei enplegu eta etxebizitza duina eskaintzea da eta hauek lortzen laguntzeko honako hau eskaintzen dute: arreta, informazioa, aholkularitza, monitoretza, laguntza eta prestakuntza, lanari buruzko informazioa (besteren konturako lanari zein norberaren konturako lanari buruzkoa) langileen eskubideen gaineko informazioa eta etxebizitzaren inguruko azalpenak.

Euskadin bi dira aipatutako informazioa eskaintzen duten bulegoak:

Espainia plaza, 8
01001 **VITORIA-GASTEIZ**
945 16 26 77

Ijentea kalea, 6
20003 **DONOSTIA-SAN SEBASTIAN**
943 48 10 40

Bulego horiez gain, Bizkaian ere badira etxebizitzari eta enpleguari buruzko informazioa eskaintzen duten zenbait bulego. Hona hemen batzuk:

ETxebizitzari buruzko informazioa eskaintzen duten bulegoak:

ETXEBIDEK –Etxebizitzaren Euskal Zerbitzuak- Eusko Jaurlaritzak kudeatzen dituen gizarte etxebizitzaren eta babes ofizialeko etxebizitzaren esleipenetan izena emateko aukera ematen die gazteei. Nahi izanez gero, Etxebidek Bizkaian duen Lurralde Ordezkaritzara jo dezakegu informazio eske.

BIZKAIKO LURRALDE ORDEZKARITZA

Kale Nagusia, 85

48011 Bilbo

Tel.: 94 403 13 00

www.etxebide.info

www.euskadi.net/etxebide

BILBOKO UDAL ETXEBIZITZAK

Kristo, 1 – 4. solairua

48007 Bilbo

Tel.: 94 413 24 00

www.bilbao.net/viviendas

GETXOKO UDALA

Foruak, 1

48992 Getxo

Tel.: 94 466 00 66

www.getxo.net/cas/ayu/viviendas/indice.htm

Enpleguari buruzko informazioa eskaintzen duten bulegoak:

**EUSKO JAURLARITZAKO JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE
SEGURANTZAKO SAILEKO ORIENTAZIO ZERBITZUA**

Kale Nagusia, 85 – 7. solairua

48011 Bilbo

Tel.: 94 403 12 22

**EGAILAN – PRESTAKUNTZA ETA ENPLEGUA SUSTATZEKO SOZIJETATE
PUBLIKOA -**

Lutxana, 6 – 2. solairua

48008 Bilbo

Tel.: 94 415 11 66 / 901 100 003

www.egailan.es

LANBIDE –EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUA -

Uribarri, 14

48950 Basauri

Tel.: 94 426 15 06 / 901 100 003

www.lanbide.net

BEHARGINTZA

www.behargintza.net

INEM –ESTATUKO ENPLEGU ZERBITZU PUBLIKOA-

www.inem.es

Bankuek ere hainbat abantaila eta laguntza eskaintzen dizkigute gazte izateagatik: gazte kontuak eta gazte- txartelak, etxebizitza kontuak eta planak, eta zenbait abantaila dituzten mailegu pertsonalak eta hipoteka-maileguak (deskontuak, desgrabazioak, ordaintzeko erraztasunak...). Hobe da hainbat bankutan kontsultatzea bat aukeratu aurretik, batetik bestera alde handiak egon baitaitezke.

Hona hemen proposamen batzuk (ez ditugu bankuen izenak aipatuko, hainbat dira-eta):

- Hipoteka-mailegua: badago banku bat etxebizitza ordaindu ahal izateko 50 urteko epea ematen diguna. Denbora luzea eskaintzeaz gain, kuotak ordaintzeko orduan erraztasunak ere ematen ditu (astean, hilean, hiru hilerik behin...).

- Etxebizitza-kontua: beste banku batek onura fiskal eskaintzen ditu, etxebizitza erosteko edota konpontzeko dirua aurreztu ahal dezagun: %3rainoko errentagarritasuna, inolako komisiorik gabe, %15eko zerga-desgrabazio...

- Gazteentzako kreditu-txartela: azkenik, badago beste bat erosketak ordaintzeko abantailak eta erraztasunak eskaintzen dituena. Kreditu-txartel honekin ez dugu komisiorik ordainduko aurreneko urtean, eta ordainbide anitzak eskaintzen dizkigu (eskudirutan ordaintzea, erosi eta hurrengo hilean ordaintzea, epeka ordaintzea...).

Orrialde hauetan irakurritakoaren arabera, abantaila anitzak izan ditzakegu erosketak egiteko orduan, eta abantaila horiez baliatzeko egin behar dugun gauza bakarra merkatuan diren eskaintzak alderatzea da.

EMANTZIPATU ONDOREN EGIN BEHARREKOA: IZAPIDEAK ETA ZERGAK

Etxebizitzaz aldatzeak (norberaren etxebizitzaz zein alokairukoaz) zenbait izapide eta ordainketa egitea dakartza:

IZAPIDEAK

- **Errolda**: agiri honetan zein udalerritan eta zein helbidetan bizi garen adierazten da. Nahitaezkoa da.

Herriko udaletxean erroldatu eta gero, honako agiri hauek gaurkotu beharko ditugu:

- Naziotasun Agiria
- Gidabaimena
- Helbide fiskala (Foru Ogasuneko datuak)
- Bankuko kontuak
- Ordainagiriak, jakinarazpenak...helbideratu beharko ditugu.
- Aldizkako argitalpenen harpidetza
- ...

UDAL ZERGAK

- Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga
- Estolderia

- Zarama
- Ur eta Saneamendua

KONTRATATU BEHARREKO ZERBITZUAK

- Argia
- Gas eta Berokuntza sistema
- Telefonoa

* Udalerri bakoitzak udal zergak kobratzeko, izapideak egiteko eta auzokideak erroldatzeko arau zehatzak ditu, hori dela-eta, hobe dugu udaletxera bertara joatea eta izapideak egiteko aurkeztu behar diren agiriak zeintzuk diren galdetzea.

** Zerbitzuren bat kontratatu behar badugu, gainerako zerbitzuekin egiten den bezalaxe, hobe da zenbait enpresak eskainitakoak alderatzea eta ondoen datorkiguna kontratatzea.

GURE AUTONOMIA.

NOLA ATERA BIZIMODUA

Gaur egun, gurasoen etxetik alde egiten dugun gehienok, orokorrean, ez dakigu nola moldatu etxeko lanak egiteko edota etxeko zerbait hondatzen denean konpontzeko.

Hori dela-eta, udalerrri askotan hainbat tailer antolatzen dituzte etxeko lanak egiten irakasteko asmoz.

Eskaintza itzela dela ikusita, monografiko honetan Bilboko Udalaren Emakume eta Garapenerako Lankidetzako Sailak eskaintzen dituen tailerrak baino ez ditugu aipatuko.

Emakume eta gizonen artean etxeko ardurak eta lanak elkartrukatzeko tailerrak

Antolatzaileen esanetan, tailer hauen helburua hainbat arlotan trebakuntza ematea, erantzukidetasuna sustatzea eta norberaren erantzukizunak eta laneko zein gizarteko erantzukizunak bateratze aldera jarrerak eta portaerak aldaraztea da.

Etxeko lanek ez dute sexurik, hots bazkaria prestatzea, jostea, lisatzea, margotzea, entxufeak konpontzea edo lauzak jartzea emakumeen zein gizonen ardura da eta agerian dago, bai emakumeek, bai gizonek gabezia handiak ditugula etxeko lanen kontuetan

Bilboko Udalak eskainitako tailer hauek urritik maiatzera bitartean izango dira.

Tailer Mistoak Emakumezko eta Gizonezkoentzat

| | |
|---|---|
| Astean 5 ordu (Guztira 125 ordu) | Astean 2 ordu eta erdi (Guztira 60 ordu) |
| Moduluak: elektrizitatea, iturgintza, brikolajea, pintura, sukaldaritza, lisaketa, garbiketa eta etxeko lanen banaketa. | Moduluak: sukaldaritza, lisaketa, garbiketa, iturgintza, brikolajea eta elektrizitatea. |

Ikastaro hauetan Bilbon erroldatutakoek baino ezin dute parte hartu. Dena dela, Bilbon erroldatuta ez bagaude ere, Bilboko Udalera dei dezakegu beste udalerrri batzuetan ere antzeko eskaintza dagoen galdetzeko.

EMAKUME ETA GARAPENERAKO LANKIDETZA SAILA

Uribitarte, 18

48001 Bilbo

Tel.: 94 420 48 38

www.bilbao.net

smujer@ayto.bilbao.net

HELBURUA: NOLA BANATU DIRUA HILAREN BUKAERARA HELTZEKO

Soldata txikiak direla kausa, eta gaur egun ditugun premiazko zerbitzuak direla kausa, gorriak pasatzen ditugu hilaren bukaerara heltzeko.

Emantzipatzen garenean, arazorik larriena ez da neurririk gabe kontsumitzen dugula, baizik eta hainbat gastuei aurre egin behar izatea. Besteak beste, honakoak ordaindu behar izaten ditugu: etxearen hipoteka edo alokairua, autoa, janaria, arropa, argia eta gasa, telefonoa...

Atal honetan, saiatuko gara gastuak kontrolatzeko eta, ahal dela, dirua aurrezteko aholkuak ematen.

Lehenik eta behin, hilean zenbat diru gastatu ahal dugun jakiteko, bi zerrenda egingo ditugu. Zerrenda batean gure diru-sarrerak idatziko ditugu eta bestean hilero ditugun gastuak eta balizko ezustekoak. Zerrenda biak alderatuz, agerian egongo da zenbat diru geratuko zaigun aparteko gauzak erosteko.

Jende askori oso laguntzen dio epe laburreko helburu bat jartzeak dirua aurreztu ahal izateko. Autoa aldatu, etxebizitza handiago bat erosi edota ametsetako bidaia egiteko gogoa, besteak beste, pizgarri handia da beharrezkoak ez diren gastuak ekiditeko.

Ondoko orrialdeetan, hilaren bukaerara aise heltzeko gomendioak emango ditugu baliagarriak izango direlakoan:

Erosketak

Hausnarketarik gabeko erabakiek aurrezteko edozein egitasmo honda dezakete. Horrelako egoerak ekiditeko, erosi behar ditugun gauzak zerrenda batean idatziko ditugu, eta ez dugu erosketarik egingo soldata kobratzen dugun egun berean, nekatuta gaudenean edota oso gose garenean. Erosketa onak egitasmo onak eginez lortzen dira. Erosketak egitera joan aurretik, oso argi izan behar dugu zer behar dugun eta zer ez. Erosle zentzudunek behar dituzten gauzak erosten dituzte lehenik, eta gainerako guztia amaierarako uzten dute.

Hainbat gauza hartu behar dira kontuan erosketak egitera joan aurretik: etxean zer daukagun, zer behar dugun eta zenbatean ordaintzeko prest gauden. Argi dago familia bakoitzak bere irizpideak izango dituela, baina emango ditugun aholkuak guztiontzat baliagarri izango direlakoan gaude:

Eskaintzak eta beherapenak

Beherapenak oso engainagarriak dira, eta, oro har, pentsatuta genuena baino gehiago erostera animatzen gaituzte. Beherapenak estrategia gisa erabiltzen dira, jendeak behar ez duena eros dezan. Hori dela-eta, merkatuta dauden gauzak erosi aurretik, ondo pentsatu behar dugu erosiko duguna benetan behar dugun ala ez.

Kreditu-txartelak

Kreditu-txartelak ere oso arriskutsuak dira, dirutza handia gasta baitezakegu konturatu gabe. Ez da batere komenigarria, esku-dirua soinean ez izatea eta erosteko egundoko gogoia izatea.

Janaria

- Etxetik atera aurretik, zerrenda batean idatziko ditugu behar ditugun gauzak. Behar ditugun produktuen marken eskaintzak alderatu behar ditugu dirua aurreztuko badugu.
- Erosketak egunero egin beharrean, hobe da hilean behin edo bitan erosketa handia egitea, horrelaxe, hobeto kontrolatuko baitugu zenbat gastatzen ari garen eta behar ez duguna erostea ekidingo dugu.
- Galkorrak ez diren produktuen eskaintzez baliatuko gara gure despentsa betetzeko.

- Banatzaileen markak erabiliz gero, zenbait produktu markakoak baino %25 merkeago eros ditzakegu.
- Haragi gorriak erosi beharrean, zuriak erosten saiatuko gara (oilaskoa edo arraina), eta arrainen artean, arrain urdina erosiko dugu, merkeagoa baita.

Aisia eta kultura

- Zinemara joaten jarraitu ahal dugu, baina asteburuan joan beharrean, ikuslearen egunean joango gara.
- Gure inguruan diren museoak eta galeriak ezagutzeko aukera aparta badugu, aprobetxatu egingo dugu, sarrera doan izaten baita.

Grina txarrak

- Erretzaileek aurrezteko egiten duten aurreneko gauza, oro har, erretzeari uztea da. Erretzeari uzteak abantailak baino ez dakartza: alde batetik, gure poltsikoan nabaritutako dugu; bestetik, pozaren pozez egongo gara erretzeari behin betiko uzteko gai izan garelako.
- Diruz txarto bagabiltza, saiatuko gara parrandak oso noizean behin egiten.

Etxea

Hilean diru apur bat aurreztu nahi badugu, honako hauek jar ditzakegu praktikan: kontsumo txikiko bonbillak erabiltzea, ateetan eta leihoetan burleteak jartzea eta telefonoz deitu behar badugu, tarifa murriztuak indarrean dauden ordutegiak aprobetxatzea.

Argia

- Gure beharretara ondoen egokitzen den potentzia eta tarifa kontratatuko dugu. Berokuntza elektrikoa izatekotan, hobe dugu gaueko tarifa kontsultatzea, nahiko merkea izaten da eta.
- Argi artifiziala, behar dugunean baino ez dugu erabiliko. Gela batetik ateratzen bagara eta inor ez bada barruan geratzen, argia itzaliko dugu.

- Fluoreszentea itzalirik 20 minutu baino gutxiago egotekoa bada, hobe dugu pizturik edukitzea. Argia behin eta berriro piztu eta itzaltzea garestiagoa da denbora batez piztuta uztea baino.
- Ohiko bonbillen ordeztentsio txikiko halogenoak edota lanpara fluoreszente trinkoak jarritz, argi berbera lortzeaz gain, ohikoek irauten dutena baino 8 aldiz gehiago gehiago iraungo dute eta energiaren %80 aurreztuko dugu.
- Etxetresna elektrikoaren kontsumoari erreparatu beharko diogu. A eta B mailakoak gainerakoak baino merkeagoak dira.
- Egoketa-gunea baino diametro handiagoko lapikoak eta zartaginak erabiliz eta lapikoak tapakiekin estaliz, energiaren %20 aurreztuko dugu.
- Bitrozeramika izatekotan, prestatzen ari garena egosten edo erretzen amaitu baino lehenago itzaliko dugu sua, eta horrelaxe hondar-beroa aprobetxatuko dugu.

Berokuntza

- Etxebizitza erosterakoan, kontuan izango dugu etxea nora begira dagoen. Zenbat eta argi-ordu gehiago izan, orduan eta gutxiagotan erabiliko dugu berogailua.
- Egunean zehar, pertsianak igoko ditugu eguzkiak gure etxea argitu eta berotu dezan. Gauean, aldiz, jaitsiko ditugu beroa gal ez dadin.
- Leihoak aldatzekotan, kristal bikoitzekoak jarriko ditugu.
- Ateetan eta leihoetan burleteak jarritz gero, ez dugu berogailua hainbestetan piztu beharko eta % 30 aurreztuko dugu.
- Gela bat aireztatzeko 10 minutu baino ez dira behar.
- Berogailu elektrikoaren ordeztentsio, hobe genuke bero metagailuak jartzea, % 50 aurreztuko baitugu berokuntzan.
- Berogailuaren tenperatura ez dadila 20 °C baino altuagoa izan, horixe baita etxerako tenperaturarik egokiena. Hortik gorako gradu bakoitzeko %5 inguru gehiago gastatuko dugu.

Telefonoa

- Operadore bakoitzak eskaintzen dituen tarifak alderatuko ditugu, eta merkeena aukeratzen saiatuko gara.
- Ahal dela, larunbatetan, jaiegunetan eta tarifa murriztua indarrean dagoen orduetan deituko dugu eta % 50 aurrezte lortuko dugu.

- Bonu eta deskontuei buruzko informazioa eskatuko diogu gure telefono-konpainiari. Operadore eta dei motaren arabera, %45 ere aurreztuko dugu.

Ura

- Txorrota minutu batez irekita uzten badugu, 5 litro ur galduko dira. Ur-jarioa duen txorrotak 60 litro ur galtzen ditu egunean. Ur-hiesak sumatu orduko konponduko ditugu, ura alferrik gal ez dadin.
- Bainatu beharrean, dutxatu egingo gara. Laurdena gastatuko dugu uretan eta ura berotzeko behar den energian.
- Arropa-garbigailua eta ontzi-garbigailua beteta egon arte ez ditugu piztuko. Horrelaxe, ura, detergentea eta energia aurreztuko ditugu.